

Ez dira **aldi** goxoak
gure hauek!

Egia esan,
ez dugu esango hemengo **alde** hau,
aldi honetan,
bere ederrenean aurkitu dugunik;

ezingo esan oraingo **aldi** hau,
alde honetan,
inoiz baino hobeki doakigunik.

Ez, ezin bata ez bestea esan
azkenetan den **aldi** honetan,
alde urratu hauetan.

Halaz ere **aldi** honetan gara jaoiak,
eta ez inor berandu, ezta ere goiz,
baina guztiok garaiz;

halaz ere **alde** honetan zaizkigu ireki begiok,
mundu honetan, herri honetan,
etxe eta gorputz honetan;
ez bestetan.

Ezin dugu ukatu

Ezin dugu ukatu, eta ze arraio!
zergatik behar dugu ukatu?

Garai batean **aldeak** ederragoak zirela...
bai, nork ez daki hori?
Garai bateko **aldiak** hobeak zituztela...
bai, denok dakigu hori;
baina lehengoak joan zirenez,
eta gerokoak etorri ez,
orain bakarrik
eta **hemen** bakarrik bihur ditzakegu "lantzak igitai"
maitasuanren aginduz,
eta hala behar denean "igitaiak lantza"
zuzentasunak beharturik.

Orain ez bada **noiz**?
Hemen ez bada **non**?

KALI YUGA

(GATAZKA AROA, ARO ILUNA)



Beste alde ederragotan ezinean
baino, ez ote dugu hobe
itsusiago honetan ahalean?



Itsusiago izan arren
hemengo hau dugu geure **aldea**;
okerragoa bada ere,
oraingo hau dugu geure **aldia**.

Ezin dugu ukatu
eta ez daukagu ukatzeko.

Eta ez dugu ahaztu behar
alderik itsusienak
ezin ederragoa dakarrela ondotik,
aldirik okerrenari
ezin hobea darraiola orpotik....

J.A.Artze

KALI YUGA (EPOCA DE LUCHA, EPOCA OSCURA)

No es **tiempo** agradable
este nuestro!

A decir verdad,
No diremos que este lugar de aquí
en este **tiempo**
lo hemos encontrado en su plenitud;

no podemos decir que en este **tiempo**
en este **lugar**,
nos va mejor que nunca.

No, no podemos decir ni lo uno ni lo otro
en este **tiempo** que se acaba
en estos **lugares** desgarrados.

Aun así, en este **tiempo** hemos nacido,
y no tarde ni tampoco pronto,
sino en el momento justo;

aun así, en este **lugar** se nos han abierto los ojos,
en este mundo, en este país,
en esta casa, en este cuerpo;
no en ningún otro.

No lo podemos negar

.....

No lo podemos negar, y ¡qué diablos!
¿por qué tenemos que negarlo?

En otra época los **lugares** eran mas bellos...
sí, ¿quién no lo sabe?
En otra época tenían mejores **tiempos**...
sí, eso lo sabemos todos;
pero como los del pasado ya se fueron,
y los del futuro no han llegado,
solo **ahora**
y solo **aquí** podemos convertir " las lanzas en hoces"
por orden del amor,
y cuando sea necesario "la hoces en lanzas".
obligados por la justicia.

Si **ahora** no es, **cuándo**?
si **aquí** no es, **dónde**?

Frente a la imposibilidad
en otros lugares mas hermosos,
¿no es mejor la posibilidad en éstos más feos?

Aunque sea más feo
éste de **aquí** es nuestro **lugar**;
aunque sea peor,
éste de **ahora** es nuestro **tiempo**

.....

No lo podemos negar
y no queremos negarlo.

Y no tenemos que olvidar,
que los **lugares** más feos,
traen los más bellos detrás,
que a los **tiempos** peores
les siguen de cerca los mejores....

**Maribel
Gartzia**